

37

DATA NOLA ADIERAZI

Data adierazteko formarik hedatuena eta erabilienak honako hauek dira:

Durango(n), 1983ko martxoaren 7a(n)
Durango(n), 1983ko martxoak 7.

Dena den, bi horien artean ere, lehena da orain arte gehien erabili dena, bai *-n* kasu-marka leku izenari eta egunari ezarriaz, bai kasu-markarik gabe. Hori da, beraz, batez ere Euskaltzaindiak gomendatzen duena:

Durango, 1983ko martxoaren 7an
Durango, 1983ko martxoaren 7a.

Zerbaki bidez adierazteko, berriz:

1983/03/07; 1983/III/07

nahiz

1983-03-07; 1983-III-07

Eta era berean:

1993-03-07ko Euskaldunon Egunkaria-n

Hilabetea eta eguna bakarrik adierazi nahi denean, ostera, bi aukera ditugula esan ohi da:

urtarrilaren 20a
urtarrilak 20

Gehiago zehaztu beharko litzateke, ordea, ez baitira beti biak aukeran izaten. *Urtarrilak 20* egitura, kasu-marka agerikorik eskatzen ez duenean erabil daiteke, beste zerbaiten aposizioan doanean, esaterako:

Datorren ostegunean, urtarrilak 20, bilduko da epaimahaia.

“Urtarrilak 20 egun dituela” edo horren antzeko egituraren laburpena da, azken batean. Baina kasu-markaren bat ezarri behar zaionean ezin dugu egitura hau erabili. Okerrak dira, beraz, ondokoak:

**Hilak 20 eta 27an, bestalde, Txotxongilo taldeak txikieneztako Erreka Mari eta Altxor bat patrikan emango du.*

**Otsailak 24tik 27 arte izango da ikastaroa.*

**Datorren otsailak 14 egingo dugu bilera.*

Horrela behar lukete:

Hilaren 20an eta 27an.
Otsailaren 24tik 27 arte.
Datorren otsailaren 14an.

Honek guztiak testuan zehar urtea, hilabetea eta eguna adierazi nahi denerako ere balio du, jakina. Goian aipatu ditugun aukeretatik forma bakarra geratzen zaigu orduan:

1993ko martxoaren 7a egun handia izango da guztiontzat.

Jardunaldiak Bilbon, 1994ko urtarrilaren 5etik 7ra izango dira.

Azkenik, aposizioetan, hiru modutara eman daiteke asteko zein egun den:

martxoaren 7an, osteguna / ostegunean / ostegunarekin.

Horrenbestez, azken bolada honetan asko hedatu den arren, ez da gramatikala ondorengoa:

**martxoaren 7an, ostegunez, ezkonduko dira.*

Data adierazteko orduan, hortaz, forma hauek erabil bitez:

- *Durango(n), 1995eko martxoaren 7a(n), aukeran utziz inesiboaren marka.*
- *1995/03/07; 1995-03-27; 1995/III/07; 1995-III-27; 1993-11-23ko bilera agiriak dioenez...*
- *Urtarrilak 20 bezalakoak ere erabil daitezke, baina aposizioan: gaur, urtarrilak 20 bezalakoetan (beraz, *otsailak 20 egin zuten bilera ez da zuzena).*

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko uztailaren 28an onartua)